

Bertaratuak:

Camino Bueno Zamarbide and.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

Fernando Barainca Lagos jn.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldía jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

Aurora Bernal Martínez de Soria and.

Representante de las Universidades /Unibertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

Jesús M^a Ezponda Iradier jn.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria.

HERRIKOA.

Nekane Oroz Bretón and.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Ignacio Toni Echeverría jn.

Representante de las Personas con discapacidad de Navarra/Nafarroan desgaitasuna duten Pertsonen ordezkaria/ CORMIN.

Pedro María Baile Torrea jn.

Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteak

Iruñean, 2017ko abenduaren 20aren 17:09 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Antonio Iriarte Moncayola jn. idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Aurreko saioaren aktaren berrikuspena eta, badagokio, onespena (atxikita doa)
2. Informazio orokorra.
3. 17/2017, 18/2017 eta 19/2017 Irizpenen gaineko eztabaida eta, badagokio, onespena.
4. 2016/2017 NHSTren gaineko eztabaida eta, badagokio, onespena.
5. 2017 urteko 2. sei hilekoko kontuen onespena.
6. Galde-eskeak.

Alfredo Hoyuelos Planillo jn.

Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea.

Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgala jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Ander Domblás García jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

M^a José Anaut Couso and.

Representante de las organizaciones sindicales/Sindikatu en ordezkaria/UGT

Javier Albizu Sanz jn.

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria.

Nora Salboltx Alegria and.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

Esther Monterrubio Ariznabarreta and.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Eduardo Mayor García jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres /Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria.

CONCAPA.

Cristina Bayona Saez and.

Representante de las Universidades/Unibertsitateen ordezkaria UPNA

Jorge Lanchas Rivero jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

Josu Repáraz Leiza jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra-Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkartea

M^a Soledad Garjón López and.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria AFAPNA

Bertaratzea desenkusutzen dute:

Roberto Pérez Elorza jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Karmele Marañon Chasco and.

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

Amaia Zubieta Garciandia and.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

Carmela Muñoz Ventura and.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT.

Sonia Cabrero del Amo and.

Representante de las Asociaciones que

trabajan por la igualdad/Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten ordezkaria

Ez dira bertaratu:

Juan Luis García Martín jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres /Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria

Santiago Álvarez Folgueras jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Ernesto Delás Villanueva jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria SORTZEN

Lourdes Larunbe Arretxe and.

Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

M^a Luisa de Simón Caballero and.

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

Benoit Julien Charles Rosso jn.

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkarten ordezkaria

Miren Aranoa Astigarraga and.

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren

ordezkaria (EH BILDU)

Lehendakariak Osoko bilkura honetara bertaratzea desenkusatu duten batzordekideak zerrendatzen ditu. Aldi berean, Nafarroako Eskola Kontseiluko kide berriak aurkezten ditu: Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen ordezkaria den Jairo Ciscar Ruiz jauna; eta Benoit Julien Charles Rosso jauna, orain arte Enpresarien elkartearen ordezkaria izan den Francisco José Flores Pérez jaunaren ordezkaria. Bestalde, batzordekideei jakinarazten die Sonia Cabrero del Amo and. eta Esther Monterrubio Ariznabarreta and. Eskola Kontseiluko kide izateari utziko diotela.

Esther Monterrubio hartzten du hitza Kontseilua uzteko arrazoiak azaltzeko eta batzordekideen lankidetzara eskertzeko.

1. Aurreko saioaren aktaren berrikuspena eta, badagokio, onespena.

Aurreko saioaren aktari buruz norbaitek zeozer esateko edo objektatzeko daukan galdetzen du lehendakariak.

Ignacio Tonik aurreko aktaren gainean egiteko ondoko egokitzapena aurkezten du: *“Ignacio Tonik hartzten du hitza. Nafarroako Eskola Kontseiluari eskerrak eman nahi dizkio burututako jardunaldietan aldibereko itzulpena zeinu hizkuntzara zein azpigituluetara egiteagatik baita begizta magnetikoa erabili izanagatik ere”*.

Proposatutako idazkera berria baiespenez onartzen da.

Alfredo Hoyuelosek eskatzen du bilkuretan emandako eztabaidak eta batzordekideen iritziak aktetan zehaztasun handiagoarekin islatzea.

Idazkariak azaltzen du araudiaren arabera aktetan akordioen edukia azaldu behar dela eta, batzordekideen iritziak, hauek hala eskatuta agertuko direla bakarrik.

Lehendakariak aurkeztutako gaia aztertuko duela adierazten du.

Ez da bestelako arrazoibiderik aurkezten eta ondorioz, akta baiespenez onartzen da.

2. Informazio orokorra.

Lehendakariak hartzen du hitza ondoko gaiak azaltzeko:

- Iruñeko Planetarioarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu da.
- Eskola jantokiei buruzko jardunaldietan parte hartu du.
- Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguneko jardueretan parte hartu du.
- Salesianos ikastetxean Lanbide Heziketa DUALAri buruzko jardunaldian parte hartu du.
- Datorren ostiralean, abenduaren 22an, IDEA aldizkariaren hurrengo alea webgunera igoko da. Otsailean Monografia paperean argitaratuko da.
- 2016/2017ko ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluaren oroitidazkia webgunean argitaratu da.
- Datorren ostiralean, abenduaren 22an, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Udaberriko Jardunaldiak prestatzeko hirugarren bilera burutuko da. Jardunaldiak 2018ko martxoaren 5ean, 6an, 7an eta 8an burutuko dira Nafarroako Museoan.
- Estatuko Eskola Kontseiluaren bi bileretan parte hartu du. Parte-hartze Autonomikoko Batzarrean eta Estatuko Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuran.

3. 17/2017, 18/2017 eta 19/2017 Irizpenen gaineko eztabaida eta, badagokio, onespina.

Lehendakariak hartzen du hitza **17/2017** Irizpenaren gaineko eztabaidari hasiera emateko. Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuraren aurrean aurkezteko hiru zuzenketa daudela azaltzen du eta, Ander Domblás jaunari ematen dio hitza testua defendatzeko.

Ander Domblásek aurkeztutako testuari buruzko azalpena ematen du eta jarraian aurkeztutako zuzenketei buruzko eztabaidari ekiten zaio.

1. zuzenketa: Zuzenketa aurkeztu zuen Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza zuzenketari buruzko azalpenak emateko.

Ander Domblásek adierazten du zuzenketarekin bat ez datorrela eta eztabaidari ekiten zaio.

Jarraian, Alfredo Hoyuelosek adierazten du zuzenketa baztertzen duela eta boto partikularra aurkeztuko duela Irizpenean gaineratzeko.

2. zuzenketa: Zuzenketa aurkeztu zuen Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza zuzenketari buruzko azalpenak emateko.

Ander Domblásek adierazten du zuzenketarekin bat ez datorrela eta eztabaidari ekiten zaio.

Lehendakariak amaitutzat ematen du eztabaida eta, zuzenketa bozkatzen da ondoko emaitzarekin: 14 boto alde, 15 aurkako eta 3 abstentzio. Ondorioz, zuzenketa ez da onesten.

3. zuzenketa: Zuzenketa aurkeztu zuen Ignacio Tonik hartzen du hitza zuzenketari buruzko azalpenak emateko.

Jarraian Ander Domblásek adierazten du zuzenketaren edukiarekin bat datorrela, eta eztabaidari ekiten zaio.

Zuzenketa aho batez onesten da.

Azkenik, lehendakariak 17/2017 Irizpenaren gaineko bozka eskatzen du ondoko emaitzarekin: 19 boto alde, 1 aurkako eta 0 abstentzio. Ondorioz, Irizpena onesten da.

Lehendakariak hartzen du hitza **18/2017** Irizpenaren gaineko eztabaidari hasiera emateko. Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuraren aurrean ez dela zuzenketarik aurkeztu azaltzen du eta, Ander Domblás jaunari ematen dio hitza testua defendatzeko.

Ander Domblásek aurkeztutako testuaren azalpen motza egiten du eta, jarraian, bozketari ekiten zaio.

18/2017 Irizpena onesten da ondoko emaitzekin: 20 boto alde, 0 aurkako eta 0 abstentzio.

Lehendakariak hartzen du hitza **19/2017** Irizpenaren gaineko eztabaidari hasiera emateko. Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuraren aurrean ez dela zuzenketarik aurkeztu azaltzen du eta, Ander Domblás jaunari ematen dio hitza testua defendatzeko.

Ander Domblásek aurkeztutako testuaren azalpen motza egiten du eta, jarraian, bozketari ekiten zaio.

19/2017 Irizpena onesten da ondoko emaitzekin: 20 boto alde, 0 aurkako eta 0 abstentzio.

4. 2016/2017 NHSTren gaineko eztabaida eta, badagokio, onspena.

Lehendakariak hartzen du hitza, batzordekideei NHSTren lanketa, eztabaida eta bozketa prozesuak sinplifikatu direla oroitarazteko. Txostenaren egitura mantentzen da beste erkidegoetako txostenen edukiarekin bat etortzeko, Eskola Kontseiluko kideekin edukiak egokitu diren arren.

Jarraian aurkeztutako zuzenketen gaineko eztabaidari hasiera ematen zaio, kapituluka.

II. kapitulua:

1. zuzenketa: Lehendakariak azaltzen du zuzenketa aurkeztu duen pertsonarekin testu berri bat adostu dela eta zuzenketa onartzea eskatzen du.

Zuzenketa aho batez onesten da.

2. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza zuzenketari buruzko azalpenak emateko, baina zuzenketarekin atzera egiten duela adierazten du.

3. zuzenketa: Lehendakariak azaltzen du zuzenketa aurkeztu duen pertsonarekin testu berri bat adostu dela eta zuzenketa onartzea eskatzen du.

Zuzenketa aho batez onesten da.

III. Kapituluua:

1. zuzenketa: Zuzenketa aurkeztu duen kideak zuzenketa baztertzen du.

2. zuzenketa: Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza aurkeztutako zuzenketari buruzko azalpena emateko. Bere aburuz, eta Iruñeko Udaletxearen funtzionamenduan duen ezagutzan oinarrituta, hezitzaileen soldaten gastu osoa ez du Nafarroako Gobernuak ordaintzen.

Ander Domblásek erantzuten dio erabilitako hitza “finantziazioa” dela eta, gastua modulu orokorretan oinarritzen denez, hezitzaileen soldaten hobekuntza Udalen esku ez dagoela.

Javier Albizuk adierazten du Nafarroako Gobernuak ez duela zaintzaileen soldataren gastu osoa bere gain hartzen.

Alfredo Hoyuelosek adierazten du zuzenketa honen helburu nagusia, Nafarroako Gobernuak onetsitako sektore honetako langileen soldaten ordainketari dagozkien moduluek, langile hauek soldata mileuristak jasotzea erraztu edo onartzen duela nabarmentzea dela.

Pedro Bailek adierazten du, bere iritziz, zuzenketan aurkeztutako testuak oinarritzko auziari tankera negatiboa ematen diola eta testua modu positiboagoan idaztea proposatzen du.

Lehendakariak idazketa berri bat egitea proposatzen du jarrera ezberdinak hurbiltzeko.

Testuaren idazketa ezberdinak aurkezten dira, baina ez da adostasunik lortzen. Lehendakariak zuzenketaren gaineko bozketa eskatzen du eta ez da onesten ondoko emaitzekin: boto 1 alde, 13 aurka eta 4 abstentzio.

IV. kapituluua.

1. zuzenketa: Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

2.: zuzenketa: Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

3. zuzenketa: Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza aurkeztutako zuzenketaren helburua ratioak jaitziko dituen Foru Lege Dekretu berri bat lortzea dela esateko. Egungo ratioek ez baitute ikasleen nortasunaren garapena bermatzen, segurtasun eta ongizatearen ikuspegitik.

Mikel Fernández de Quincocesek erantzuten du esanez testu hau, aurreko ikasturtean aurrera eramandako jardueren argazki finko bat deskribatzen duen txostena dela eta, ondorioz, hauen inguruko balorazioak egitea lekuz kanpo dagoela.

Zuzenketaren gaineko bozketa egiten da eta ez da onesten ondoko emaitzekin: boto 1 alde, 16 boto aurka eta abstentzio 1.

4. zuzenketa: Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza zuzenketa baztertzen duela jakinarazteko.

5. zuzenketa: Lehendakariak hartzen du hitza transakzio-testu berri bat idatzi dela adierazteko eta honen onespina eskatzen du.

Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

6. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza zuzenketa baztertzen duela jakinarazteko.

7. zuzenketa: Lehendakariak hartzen du hitza transakzio-testu berri bat idatzi dela adierazteko eta honen onespina eskatzen du.

Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

8. zuzenketa: Lehendakariak hartzen du hitza adierazteko, hurrengo ikasturteko txostenean informazioa sexuka bereizteko transakzio-testu berri bat adostu dela.

Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

9. zuzenketa: Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

10. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza aurkeztutako zuzenketa defendatzeko.

Zuzenketaren gaineko eztabaidari ekiten zaio eta, lehendakariak bozketa egitea eskatzen du.

Zuzenketa onesten da ondoko emaitzarekin: 12 boto alde, 3 aurka eta 3 abstentzio.

11. zuzenketa: Lehendakariak hartzen du hitza transakzio-testu berri bat idatzi dela adierazteko eta honen onespena eskatzen du.

Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

V. kapitulua

1. zuzenketa: Ignacio Tonik hartzen du hitza zuzenketaren edukia defendatzeko.

Bozketa egiten da eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

2. zuzenketa: Bozketa egiten da eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

5, 7, 8, 9, 10, 11, 12, eta 13. zuzenketak, 1. eta 2. zuzenketen tankerakoak direnez, lehendakariak haiek onestea proposatzen du.

Bertaratutakoen baiespenez onesten dira.

3. zuzenketa: Bozketa egiten da eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

4. zuzenketa: Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza aurkeztutako zuzenketa azaltzeko.

Zuzenketaren arrazoibidearen gaineko eztabaidari ekiten zaio.

Alfredo Hoyuelosek adierazten du zuzenketa atzera botatzen duela. Auzia iradokizun bezala aurkeztuko duela azaltzen du.

6. zuzenketa: Bozketa egiten da eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

14. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza aurkeztutako zuzenketa defendatzeko.

Bozketa egiten da eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

15. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza aurkeztutako zuzenketa defendatzeko.

Bozketa egiten da eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

16. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza zuzenketa baztertzeko duela jakinarazteko. Gogoeta bezala aurkeztu zuela azaltzen du.

17. zuzenketa: Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza paragrafoa ezabatzea eskatzen duela adierazteko. Datuak, modu honetan, testuingurutik kanpo baitaude.

Ignacio Iraizozek parte hartzen du esanez eskatutako ezabaketarekin bat ez datorrela. Hortaz, beste taula guztiak ere berrikusi beharko zirelako. Nahiz eta funtsezko edukiarekin ados egon.

Fernando Baraincak ere parte hartzen du, zuzenketa onartzen bada, testua zehatza ez dela adierazteko.

Alfredo Hoyuelosek hartzen du hitza zuzenketa baztertzeko duela adierazteko.

18. zuzenketa: Camino Buenok hartzen du hitza zuzenketaren edukia azaltzeko.

Lehendakariak zuzenketaren idazketa berri bat proposatzen du eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

Nora Salbotxen iritziz, Txosten honetan "sexua" hitzaren erabilera ez da egokia. "Genero" hitza egokiagoa da. Ondorioz, Txostenaren testuaren berrikuspina egitea eskatzen du.

Lehendakariak erantzuten dio momentu honetan Txostena ezin dela berrikusi. Adierazitako proposamena idatziz aurkeztea eskatzen dio, hurrengo urteko Txostenaren idazketan aintzat hartzeko.

Lehendakariak behin betiko NHSTren gaineko bozketa egitea eskatzen du, eta bertaratutakoen baiespenez onesten da.

5. 2017 urteko 2. seihilekoko kontuen onespena

Lehendakariak Eskola Kontseiluko kudeaketa kontuaren azken laburpena banatu eta azaltzen du.

Bertaratutakoen baiespenez onesten da

7. Galde-eskeak.

Javier Albizuk hartzen du hitza behin baino gehiagotan eztabaidatua izan den gaia aipatzeko: D ereduko DBHko eta Batxilergoko ikasleen ordutegien arteko aldea eta honen ondorioz eskola garraioan bete gabe geratzen diren lekuak.

Mikel Fernández de Quincocesek erantzuten du aurkeztutako arazoarentzat konponbiderik ez dagoela, Batxilergoaren derrigorrezko edukiak Estatuak ezartzen dituelako, Hezkuntzako Lege Organikoaren bidez.

Bestalde, Alfredo Hoyuelosek adierazten du 0-3 Foru Dekretua aldatzeko eztabaidan, Hezkuntza Administrazioaren ordezkariak Dekretu berria batera idazteko laguntza eskaini zutela eta, eskaintza hau mantentzen den jakin nahiko luke.

Ander Domblásek erantzuten du Foru Dekretu berrian lanean ari direla eta, eskaintza mantentzen dela.

Eta lantzeko gai gehiago egon gabe, Lehendakariak Osoko bilkuraren bileran bertaratutako kideen parte-hartzea eskertzen du, saioari 20:00etan amaiera emanez.